

1909

Euskal-itz jostaldien Batzarrea.

(Euskal-festen XXVIII garren urtea.)

ZORIGAIŠTOZKO EZTAYAK

IRAKURGAYA

ZORIONTASUN guztiyen jabe danik ez deritzot izan litekienik iñor zerupe ontan, bada irakurri besterik ez daukagu, eta onez gain ikusiko degu zer ez bear aundiyen mendean bizi izan zan Jesus, eta ill zan gurutzean josirik gure biurkeri eta zitalkeriyak desegiñik, etsayaren kate sendozko loturak oso eten edo urratzeko.

Guztiyak dakigun gauza da, Jaungoikuaren seme guztiya zezakienak, erakusgai aundiyak agertu zizkigula bere egintza arrigarrizkuakin, eta alaz guztiyaz ere, chiništen ez bagendu bezela bizi gera zoriontasuna mugaduna dala gure artean.

Alferrikako irudimenez beteak bizi geranok, oroitu bear genduke beti arren maitasun neurri edo muga gabeaz, eta ala, irichiko giñake ezaguera osuan chinistera zorion guztiyen jabe danik iñor ez dala ludi zabal ontan.

Au guztiya orla dalarik, jakiñ arazi bear det izkribu-buru oni dago-kiyon kondairairudizko zorion galtzearen berri emanaz, gayak ematen diran luzetasun edo laburtasunean zer nolako edo zenbaterañoiko negargarrizkua izan zan.

Euskal-erriko erri chiki errekacho baten ertzean dagueñ baserri batean bizi zan senar emazte aldi bat alaba bakar, eder, eta egoki on batekin, guztiz zoriontsu, pakezko biziera lasayan

Gurasuak beren alaba maite zuten eziñ neurtu litekien diñako maitasun aundiz, bada lenesan detan bezela nola zan bakarra, jakiña daga gurasuakiko maitasuna norenganakua izango zan; eta alabak ere bere biyotzaren maitasunezko aginde guztiyak zeuzkan, gurasua ganuntz jarriyak.

Alaba bakarra bai, Luchi gaiñua; guztiz mintzoera šamurrekua, ona langillia eta echeko beargintza guztiyetan ezeren ekachik gabia, da esatia echerakoi aundiya.

Egunero errirutzen zan esne eta baratzakiz saski betia buruz gaiñ jasorik. Enparantza edo plazan diru ordañez saldurik, nekazaitzako lan ordañak pozgai edo limurkaitzat aurrerako ere izan zitezen; bañan gurasuak etziran arki nai beziñ lasai alabari ematen ziyoten bizierarekin, zeren egun batean Mikela-kagertu ziyon bere senar Anton-i bere gogoko berri, eta erabaki zuten joste lanak erakustia goizeko eraman ekarriyen galerik gabe.

Erabakitzia edo asmo onen berri eman ziyotenian alabari, jarri zan au pozez beterik, non chori batek udaberriyan ez duben ulertzen gerezi gorri gañean mokoka ari danian ere, ainbesterañoko poz eta atsegintasunik.

Au aditu ondoren edo jakin zubenian gurasuen asmo eder naikidatsu orren berri, diyo Luchi-k beregan.

¡Zer zori onekua naizen!

Ondorengo zortzi egunetan, etzuben Luchi gaiñuak lorik ere egi-ten bere jostun izan naiko intziriyarekin; lotarako ustean oyeratzen zanean, isten zituen begiyak lo egin naizrik, bañan bere betiko pozezko ametsak zabal arazitzen zizkan, jostorratz eta ari chirrika irudiz ikustearekin.

Etzan beñere gurasuen aginduz beste alderako egiteaz auzartzen, baizik chinchotasun aundiz aginde guztiyak osatzen zituben Luchi gaiñuak, eta ala irabaziya zeukan bere guraso maitien borondate osua.

Ontasun abetzaz gaiñ, edertasunezko gai aundiyak ere berekin zeuzkan; aren begi eder mintzakitsuak baziruditen mingañari chandarik eman gabe itzegiñ nai zutela; ¿bañan itzezin ere nola? Ama batek aurra bularrean daukanean beziñ šamurkirotsu eta atsegintasun aundiyan.

¿Au guztiya zerk eragiñ arazten ziyon? Barrungo erapeko nagusi, edo itz batean esateko..... biyotzak.

Igaro ziran amar egun gurasuen asmo berri jakin zubela, bañan

nola denak isilik zeuden, egun batean Luchi-ri bururatu zitzayon amari galdetzia, norenganatu bear zuten josten ikasteko. Amak erantzun ziyon, jostundegira joaten asi bañan len, nai ziyokiela soñeko egoki bat erosi, bada zeukana zeguela itsusi samarra, eta ontarako Donostiratuko zirala bide batez josten erakutziko ziyonari itzegiñaz. Atsegintasun aundiya eman ziyon amaren erantzuerak Luchi-ri, eta len bañan arreta aundiyaguakin eheko eginkisunai jarraituko ziyela esanaz barkaziyua eskatu ziyon amari egin ziyon galdeerakiñ utsegiten bazukien bezela.

¡Zer biyotzoneko damacho manchua! ¿Nola etzuten bada maiteko bere gurasuak umilltasun eta ontasunez besterik ez bezelakua bazan?

Egun sentiyan choriyakpipirripika asten ziran garayan esnaturik, jeikitzen zan, aurreko egunetan bezela bere eginkisun naikidatsuetan guraso maitiai laguntzeko.

Griñatsua zan guztiz, eta etzizayon iruditzen beñere bear ziran lan gai guztiyak osatzen zitubenik; egiñ naya geyago zeukan beregan egiten zubena baño, eta etzan beste zenbait diran bezela pallaku bearrekua ikusten zuben eginkisunari eltzeko.

Askotan esaten zubena zan eginkisunak pillakatuak ikusten zitubenian.

¡Zer zorionekua naizen!

Udazkenean lanak menderatu zituztenean, astelen arratzalde batean amak esan ziyon Luchi-ri, apain zedilla zuben soñekorik onenarekin, Donostiratu zitezen egindako eskeñiya osatzeko.

Biyotzak egin ziyon mogida Luchi-ri neurtu eziñezko pozarekiñ, aundiya izan zan, bada, len zoriyontsua zala bere buruz iritzirik zeguelarik iruditzen zitzayon eskeñi naikidatsu orren osatzeakin, aberatstasun aundiyak bereganatu zitubela.

¿Nola ez bada, bere intziri guztiya ortaratua bazeukan?

Etzan gauz aundi bearrekua bere burua zorionekotzat ezagutzeko. Esan bezela apaindurik, Donostiratu ziran ama eta alaba, chakur zintzo pinto-ren zaitze mendean echea utzirik, bada Anton, mendira joana zan goizetikan egun guztirako egur epaitzara.

Errira irichi ziranian amak esan ziyon Luchi-ri, elizarako asmoak zitubela done Antoniyo-ri otoiz egiñaz eskatzeko zeuzkazkiyen asmo guztiyak zuzen eta naiera osoan irten zitezen.

Luchi-k erantzun ziyon bere biyotzaren aginduzko maitasunarekin; osa bedi berorren borondatia, ama; eta.....

¡Oraindaño, zer zorionekua naizen!

Illunabarrean echeratu ziran chit pozkida aundiz beterik, bere asmo guztiyak ondo irten ziralako, bada andre Tereša zeritzon jostunak esan ziyen urrengo egunetik bere erakusmenez gain gelditu zitekiela josten ikasteari jarraitu nai baziyon.

Eguzkiyak bere iraultza egin zuben garayan, bere egun guztiko lanak buka ondoren nekearen aztuntasunakin elbartua bazegokien bezela, sartu zan echian Anton, eta aizkora bere lekuan usteko betarik gabe, galdetu ziyen zer berri zeramakiten Donostiyatik.

Pinto-k ere bazirudiyen zerbait jakin nayan galdeera bera egiten zubela, bada aifñ zan zakur on maitiya, non, bere izatzaren mogierakin, eta zaunka pozezkuakin adierazten zuben, zerbait jakin nayan zale-tasuna.

Senarrari, Mikela-k albiste pozezkuua ematen ziyon bitartian, Luchi-k, Pinto pallakuz beterik artu zuben bi eskuakin, eta jasorik bular gañera eman ziyon zekorki saldetan buztitako ogi puzketa guri, guri bat; bada amak, berri on aren ordaintzat, nai izan zuben bere alabarekin alboraketu zerbait pizkor-garrirekin, zoragarritzko asmo osatze ura, eta jan zuten lur sagarrakin bat maniatutako zekorki gaztearen zaticho bat, edanik sagardua, zergatik beste edaririk ezagutzen etzuten. Gau artan, eche artako poz gaya neurtuko zuben neurtzallerik ez deritzot izango zanik iñon, bada echadi burutik asi, eta Pinto-renganako guztiyak, baziruditen mogiarazten zitubela zerbait berena etzan erabilkayen batek. ¿Nola ez bada, naiera guztiyak bear beziñ ondo osatu bazituzten?

Nekatua zегuen Anton, bañan alaz guztiyaz ere, bera jechi zan ukullura, bei, eta beste abere guztiyak bazka araztera, eta ondoren igorik, afaldu zuten iru elkar maite ayek lotaratzeko urrengo egun senti arte.

Oituratzen zuben bezela, Luchi alcha zan aulkitik, eta musu bana eta gabonak emanaz guraso maite ayeri, diyo gela edo lodiko ate aurrean.

¡Zer zorionekua naizen!

Urrengo egunean Luchi, goizeko eginkisun guztiyai osakisun ona eman eta bazkal onduan erriraturik, jostundegiratu zan, eta ekin ziyon jakinpide berri naikidatsuari.

Egun guchiyen egin zituben bere biyotz onaren bitartez, adiskidetasunezko ezaguera aundiyak, guztiyak maite zuten bere on izate gayez, zeren etziran azpertzten Luchi-ren ontasunen aunditasunak goratzez.

Aiñ zan ona gaiñua; non lagun guztiyak elkarren leyz nai izaten ziyoten echeraño lagundu, bidian ezeren okerrik izan etzezan; ainbesteraño borondatiak irabazi zituben lagun artian.

Guztiya zijuakiyon ondo, eta dena zan beretzat zori onezko izaera, bañan nola ez baitan lendik esana daukadan bezela zorion guztiyen jabe danik zerupe ontan iñor, zorigaiñozko eztai jai-tze batian muga arkitu zuben Luchi gaiñuaren zorientasunak.

Bere adiñkide Mañu-k arrendurik joan zan egun batian eztai jaitzera, bañan joate ori egin zuben jakiña dan bezela, gurasuen baime-narekin.

Elizako joan etorriya egiñ zutenian, ostatu batian sal-tu ziran eta ondo gozaldu ondoren arrabeta soñuan laguntzat dantzatu ziran dantzan zekiten guztiyak, bada Luchi-k nola ez baizekiyen eserita egon bear izandu zuben bazkal ordua irichi zan arte. Ontarako garaya irichi zanian, eñeri ziran bakoitza bere lekuetan; eta ekin ziyoten bazkari-yari gogo aundizko sarrerakin, bañan gauza guztiyak nola ez litez-kien beti ondo atera, Luchi zorioneko arteraño izan zan mirabeari, jaten ari zala, ez bear bat egiñik erori zan aulki ta guzti lurrera non, mayan arki ziranetatik bat, besteak zerbait laguntzen ziyoten bitar-tian Luchi-ri, joan zan sendakiñaren billa, onek etorri eta ikusi zube-nerako esan zuben oyeratu zezatela, zergatik zetorkiyon gaitz charra eta luzaroko iraupenekua.

Ostatuko echekoandre Fermina-k ere zan guztiz ongille aundiya zeren agindu zuben oyeratu zezatela beriela eta izan zitezela albista-tuak Luchi-ren gurasuak, zer gertatzen zan esanz.

Bi ordu inguru igaro zituben ezaguera edo konturik gabe bañan konturatu zanean ikusi zituen gurasuak oyaren aurrean mingarritu samartuak, eta esan ziyen onela.

Oraindaño zorionekua izan banaiz ere, irichi da nere zorion naiki-datsu aren muga edo galtzea, chit gaizki arki det nere burua, ¿eta guztiya zergatik? ¡Zori gaiñozko eztayak-gatik! Ama; aurrera bedi, esan bear diyot gauza bat; betor betorkit onerasiago; au aditu ondo-ren, ama gajua aurreratu zan zer aditu bear zubeneko zalantzan.

Luchi gaiñua aiñ zan ona eta elizakoi zuzena eta zintzua, non be-riela agertu ziyon amari biyotzetik zetorkiyon gogua, izanik au apai-zagan aitormen naya; ez ain gaizki arki zalako, baizik, maiz aski chinesmen osuarekin oituratzen zutelako elizaren agindepeko eginki-sunak osatzez.

Amak au aditu eta beriola agindu zuben ostatuko echeko-andriaren baimenarekin, etorri zedilla apaiza bere alabak biyotzetikako aginde ura gogo zuben bezela osazezan; bañan ez esan gabe bere minbereta-sunakin.

¡Zori gaiñozko eztayak!

Albistatu, eta ordu laurden bat baño len, oyaren aurrean jarri zitzayon apaiza Luchi gaiñuari, eta bere aitortze ona egin ondoren, artu zituben elizakuak, zeren. erlia loreakin poztutzen dan bañon poz geyagorekin, berrirotu zuben betiko esaera šamur eta gošo.

¡Zer zori onekua naizen!

.....

Luzaro šamar egon zan gaiñorik, bañan sendatzera irichizanian, amari esan ziyon, gaišo egon zan bitartean eskeni bat egin zubela Gure Amandre Arantzazukoagana, eta oni osatze on bat emateko nai zukiela baimentza, zeren amak erantzun ziyon, ondoiruditzen zitzayola, eta Arantzazurako joan etorri ori echadi guztiyak egingo zubela ezkerak emanaz osasuntze atsegingarriyatik; eta Luchi-k diyo bere biyotzeko pozari irteera emanaz.

¡Zer zorionekua naizen!

JUAN INAZIO URANGA.

